

ERORIKOEN PREBENTZIOA ARRETA SANITARIOAN

MATRIKULAZIO EPEA	NOIZ EMANGO DEN	EMATEKO ERA	IRAUPENA
Hasiera-data: otsailak 10 Amaiera-data: martxoak 1	Hasiera-data: otsailak 10 Amaiera-data: martxoak 16	ON LINE	15 ordu

NORENTZAT:

Edozein jarduera-esparru posiblean pazienteen arretari lotutako profilak dituzten Osakidetzako langileentzat: medikuak, erizainak, beste diplomadun sanitarioak, teknikari espezializatuak, erizain laguntzaileak eta zeladoreak.

HELBURU OROKORRA:

Osakidetzako profesionalen ohiko jardueran, jardunbide egokien gomendioak txertatzen laguntzea, erorikoak prebenitu eta haiei heltzeko. Ezagutzaren bidez eta eskura dauden tresnak erabilita, pazienteek eroriko gutxiago izatea eta eroriko horien kalteak minimizatzea da asmoa.

HELBURU ZEHATZAK:

- Erorikoek pertsonengan dituzten ondorioak eta eragina ezagutzea, baita profesionalei, osasun-sistemari eta gizarteari dagokienez ere.
- Faktore anitzeko balorazioa egitea, erorikoak izateko banakako arriskuari zein inguruari dagokienez.
- Erorikoak prebenitzeko gomendatzen diren esku-hartzeak ezagutzea, eta hautemandako arriskuaren arabera zer neurri ezar daitekeen jakitea.
- Eroriko baten aurrean litezkeen jokabideak ezagutzea, lesioa minimizatzeko erabilgarri dauden baliabideak eta dagokion eremua kontuan hartuta.
- Pazienteak eta senideak/zaintzaileak ahalduntzeko teknikak eta tresnak ezagutu eta erabiltzen jakitea, bai erorikoak bai erorikoen arrasto posibleak ekiditeko.

EDUKIA:

1. Modulua: Erorikoak, eragin handiko osasun-arazoa.
2. Modulua: Erortzeko arriskuaren balorazioa.
3. Modulua: Erorikoak eta ondoriozko lesioak prebenitzeko gomendioak.
4. Modulua: Pazienteak eta senideak ahalduntzea.

METODOLOGIA:

Online ikastaroa da, Jakinsarea plataformaren bidez egitekoa. Edukiak modulutan diseinatu eta egituratu dira, autoikaskuntzaren bidez ikastaroaren helburuak betetzeko. Modu sekuentzialean egingo dute aurrera ikasleek. Proposatutako ordenan egin behar dira moduluak; hau da, hurrengo modulura pasatzeko, unekoa amaitu behar da.

Testuinguruan kokatzeko, teoria ez ezik, bideoak eta ikus-entzunezko materiala erabiliko dira. Bideoen bidez sentsibilizazioa lantzen da; izan ere, bideoetako askok esperientziak islatzen dituzte, profesionalen egunerokotasunetik eta pazienteek sentitzen dutenetik oso hurbil dauden egoeren bidez.

Baliabide gehigarrien atalean, material osagarria aurkituko dute ikasleek.

Modulu bakoitzaren ostean, ikaskuntzan lortu diren aurrerapenak erakutsi behar dira autoebaluazio-ariketa batzuen bidez. Gainditu egin beharko dira aurrera jarraitu ahal izateko.

ZIURTAPENA:

Ikastaroa gainditzeko, ezagutzen testa egin behar da (aukera anitzeko 10 galdera). Galderen % **80ri** zuzen erantzun beharko zaio gutxienez; eta, horretarako, hiru saialdi dituzte ikasleek.

ZER HIZKUNTZATAN EMANGO DEN: euskara.

EGIAZTAPENA ESKATUTA: *BAI*

NORK ANTOLATZEN DU:

Prestakuntzako Zerbitzu Korporatiboa
(PRESTAKUNTZA@OSAKIDETZA.EUS)

KOORDINAZIOA: *Zerbitzu-erakundean Etengabeko Prestakuntzaz arduratzen den pertsona*

Prestakuntza Zerbitzu Korporatiboa / Garapen eta Prestakuntzaren Zuzendariordetza